

HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA BERARIAZKO IKASTAROAK	
MODALITA TEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	EUSKARA

3. HE: BIRZIKLATZE IKASTAROA

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Urriak: 21, 23, 28, 30 Azaroak: 4, 6, 11, 13, 18, 20	IKASGELA/ TOKIA	28. gela, IVAP Eusko Jaurlaritza Donostia-San Sebastian kalea, 1 Vitoria-Gasteiz
IRAUPENA	20 ordu	ORDUTEGIA	09:00-11:00
MATRIKULA EPEA	Urriaren 3ra arte	ONIRITZI EPEA	Urriaren 10ra arte
IKASLE KOPURUA	15 gehienez ere	HARTZAILEAK	EAEko Herri Administrazioetako langileak. Derrigorrezkoa da C-1 maila izatea.

IRAKASLEA
ETA DISEINUA

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK

Langileek denboraren joanean hizkuntza ez erabiltzeagatik galdu duten maila berreskuratzea eta hizkuntza erabiltzeko beldurrak kentzen laguntzea.

Oharra: Ikastaro hau ez da 4 HE prestatzeko.

HELBURU ZEHATZAK

- Laguntza eskaintzea hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzeko eguneroko jardueran.
- Langileei euskara eguneroko lanean aplikatu dezaten baliabideak ematea.
- Erregistro formala eta informala bereizten eta desberdin erabiltzen ikastea.
- Jardunean errepikatzen diren akatsak zuzentzea
- Lan arloko hiztegia lantzea.

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

Teoria eta praktika uztartuko dira ikastaroan zehar, nahiz eta alde praktikoak lehentasuna izango duen.

IKASTAROAREN EZAUGARRIAK

- Birziklatze ikastaroak aurrez aurrekoak izango dira.
- Ikastaro horiek lanorduen barruan izango dira, baina ordu-kredituen sistematik kanpo egongo dira, oraingoz behintzat.
- Ikastaro hauek dagokien hizkuntza-eskakizunetik gertuko maila duten langileentzat dira.
- Birziklatzeko ikastaroak ez dira egokiak izango, adibidez, idazki-mota jakinak landu nahi dituzten langileentzat, edota behar espezifiko zehatzak dituzten langileentzat. Ikastaroan administrazioeko jardunarekin zerikusia duten idazkiak, gaiak edota ariketak landuko badira ere, birziklatzeko ikastaroen planteamendua ikuspuntu orokorretik dago bideratuta.
- Ikastaroaren osagarri moduan etxerako lanak bidaliko dira.



HIZKUNTZA PRESTAKUNTZA BERARIAZKO IKASTAROAK	
MODALITA TEA:	AURREZ AURRE
HIZKUNTZA:	EUSKARA

3. HE: BIRZIKLATZE IKASTAROA

PROGRAMA

Gramatika:

Euskaltzaindiaren arauak
Ikasleen zalantzak eta akats gramatikalak

Lexikoa

Idazmena

Testu antolaketa eta gaiaren garapena
Testu egokiak eta argiak egiteko hainbat baliabide
Testu erak:

Instrukzioak: oharrak eta argibideak

Narrazioa: eskutitz formal/informala, oharrak, berriak, kontakizun laburrak...

Deskribapena: lanpostuaren deskribapena, kontakizuna, eskutitz formal eta informala...

Azalpena: laneko txostenak, eskaerak, e-mailak, ofizioa, bilera-deia...

Argudioa: iritzi-testuak

Mintzamena

Elkarrizketak, narrazioak, azalpenak, telefonoz lanean

Irakurmena eta entzumena

Lagunarteko solasak, telefonozko elkarrizketak, bat-bateko topaketak berriak, kronikak, eta laneko azalpenak.

BAJA EMATEKO EPEMUGA

Ikastaroa hasi aurreko azken laneguna.

EBALUAKETA

Ikastaroan zehar betetako eginkizunak hartuko dira kontuan GAI kalifikazioa lortu ahal izateko.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazio inkesta

ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

- % 80ko bertaratzea eta aprobetxamendu proba gainditzea

PREZIOA

186 €

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailbururena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.